

# Bernard Poignant

KIMPEREKO AUZAPEZA

■ Jospinen gobernuak eskaturik, Bernard Poignantek hizkuntz gutxituei buruzko txostena egin zuen iaz. ■ Kontseilu Konstituzionalaren erabakia gogortzat jo du eta dei egin dio gobernuari amore ez emateko. ■ «Jakobinoen eta Girondinoen» arteko tirabiren beste ondorio larri bat deitoratu du.

## «Kontseiluaren erabakia gogorra eta damugarria da hasitako lanari begira»



ETIENNE DERRIEN

### ■ Zer iruditzen zaizu Kontseilu Konstituzionalaren erabakia?

Erabaki erradikala hartu dute, eta nahiko gogorra da. Ene ustez, damugarria da proiektu zabala oztopatzea eta beste aterabide bat aurkitu beharko dugu lehenbailehen. Ez dakit gobernuak zer egiteko asmoa duen, baina ez du amore eman behar. Proiektua bururaino eramateko aukera guztiak ikertu beharko ditu, nazional batasuna, frantses hizkuntza eta errepublikar printzipioen izenean.

### ■ Kontseilu Konstituzionalaren erabakia politikoa da?

Ez da erraza hori erraitea. Alabaina, azpimarratu behar da Yves Glénatsek zuzentzen duela Kontseilu Konstituzionala, eta ahoan bilorik gabe erran dezakegu ez dela horrelako neurrien promozionatzaile amorratuena. Bestalde,

### Ondorioa

«Kontseilu Konstituzionalaren erabakia aintzat hartuz gero, dena itxi beharko genuke: sare publikoko eskola elebidunak, telebistak eta abar».

Abadie jauna zen erabakiaren bozeramailea, eta antzeko fama du. Ez du dudarik kontrako indarrak genituela Kontseiluan.

### ■ Alta bada, Guy Carcassonek iritzi ezberdina zeukan?

Kontseiluak abisu bat

eman du. Ez du erran nahi beste legegizon guztiak ados izanen direla egituraren ikusmoldearekin. Azken finean, Kontseilu Konstituzionalaren erabakiak ez dira funtsezko egiak. Erabakia komentatzen ahal da, erran daiteke uste-kabe txarra izan dela, eta abar. Alabaina, erabakia errespetatu behar da eta erabakiarekin egin beharko dugu aurrera.

### ■ Ituna berresteko, Kontseilua aldatzea funtsezkoa izanen da?

Ez dakit xuxen. Legegizonek beharko dute erabakia zehazki ikertu, aukera guztiak baloratzeko. Anartean, gobernuak lanean jarraitu beharko du egin ezberdintasun kulturalak sustengatzeko eta bultzatzeko. Zeren, Kontseilua Konstituzionala aintzat hartzen baldin badugu, dena itxi behar genuke: eskola publikoetako eskola

elebidunak, telebistak eta abar. Gobernuak ez du amore eman behar eta bide beretik jarraitu.

### ■ Hitzaurrea salatuz, Kontseiluak funtsezko arazoa pausatzen du?

Banekien gauzak ez direla errazak izanen, baina ez nuen uste horrelako erabaki lotsagarria eta gogorra hartuko zuenik. Kontseiluak erraiten du Itunak zangopilatzen duela Errepublikaren ezinbaketak eta legearen aurreko berdintasuna. Nahiko larria da horrelako gauza erratea eta gauzak blokeatzeko arriskua dago.

### ■ Jakobinismo azkarraren beste adierazpen bat da azken finean?

Lehendabizi, oroitu behar da Jacques Chirac lehendakariak bakarrik galdera pausatzen zuela Kontseiluan. Des-

martxa egin zuen maiatzaren 20an, jakinez erabakia emanen zela ekainaren 13aren ondotik. Galdera pausatuz, keinu bat egin zien jakobino guztiei. Alabaina, ez zituen kezkatu nahi girondinoak. Taldeko tirabira politikoaren ondorioak hor ditugu gaur egun.

### ■ Orain, zer gertatuko da?

Lehendabizi, Kontseilu Konstituzionalaren testua ongi ikertu beharko da. Ondotik, erreakzioak izanen dira estatu osoan eta gobernuak kontuan hartu beharko ditu. Bide beretik jarraitzea aukera bakarra izanen da elkarrekin bizitzeko modua aurreratzeko eta hobetzeko, gure batasuna egiten duena baztertu gabe.

**Lutxi Fourcade**  
BAIONA

**Erramun Baxok** • Euskal Kultur Erakundeko lehendakaria



### «Gure itxaropena itotzen dute»

► «Erabakia beldurgarria da. Itxaropena eman ziguten, bai gobernuak, bai Chiracek, bai Guy Carcassonen txostenak. Denek frogatu ziguten Konstituzioa ez zela aldatu beharrik Eurokartaren sinatzeko. Orain, Kontseilu Konstituzionalak, egitura gorenak, jujamendu bat eman du erranez Europako Ituna ez dela bateragarria frantses Konstituzioarekin. Oinarritzko eskubide bat ukatzen digute, baita eskubide kolektiboak ere. Azpimarratu behar

da hitzaurrea ez dela normatiboa. Norabide bat eman dio Eurokarta guztiari. Hori ukatuz, gure itxaropena itotzen dute. Bagenekien Konstituzioaren irakurketa bat baino gehiago egiten ahal zela. Irakurketa irekia egiten ahal zen, batez ere kontuan harturik 1789ko deklarazioaren 11. artikulua, hots herritar orok baduela hitz egiteko, inprimatzeko, idazteko askatasuna. Oinarritzko askatasun hori ukatzen digute. Azkenean, erabakiak frogatzen du Konstituzioa aldatu beharra eta herri hizkuntzak nolazbait sartu behar ditugula. Ez dut uste berehala ofizialtasuna emanen dutenik, baina gutxienez kultur ondare nazionaltzat sartu behar dira herri hizkuntzak».

**Jean Haritzelhar** • Euskaltzainburua



### «Hizkuntz arrazakeria da»

► «Kontseilu Konstituzionalaren erabakiak pozten nau. Orain, gauzak jarriak dira behar den bezala. Frantses jakobino horiek ez baldin badute erakutsi nahi munduari Frantziaren aurpegi itsusia hizkuntzei buruz, beharko dute aldatu lege nagusia edo Konstituzioa, nahi ala ez. Azken finean, Eurokartari buruz hartutako erabakiarekin, Kontseilu Konstituzionaleko beren eginbeharra baizik ez dute egin. Diren testuak aplikatu dituzte. Baina erran be-

har da Konstituzioa gaizki egina dela. Bigarren artikulua erraiten duelarik frantsesa Errepublikako hizkuntza dela, enetzat arrazakeria da, hizkuntz arrazakeria. Erraiten dute hizkuntz bat bakarrik badugula Frantzian eta besteak ez direla. Testu hori egin dute ingelesaren mehatxuari aurre egiteko baina funsgabeko joera izan dute ahortziz beste hizkuntzak zirela Frantzian. Oroitzen naiz hitzeman zigutela 2. artikulua ez zuela ondorio latzik ekarriko beste hizkuntzei. Eztabaida hori ukan genuen 1992an eta artikulua bultzatzaileek nahiko baikorrak ziren. Orain, oharitzen gara eragin handiak izan dituela eta lege gizonen legea aldatu beharko dute.